

ZOZKETAREN OINARRIAK

1.- Erakunde antolatzailea eta zozketaren data

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito –aurrerantzean LABORAL Kutxa–, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) –Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500– duenak, zozketa bidezko sustapena egingo du. Hain zuzen, 5 sari zozkatuko ditu: hileko ekarpen erregularra, 2019ko uztailekoa, bider hamabi eginda ateratzen den zenbatekoa, gehienez 3.000 euro saridun bakoitzeko .

2.- Doakotasuna

Zozketa hau doakoa da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Pertsona fisikoak diren 18 urtetik gorako bezero guztiek hartuko dute parte zozketan. Horretarako, hileko **ekarpen erregularrez** osatutako **LABORAL Kutxaren aurreikuspen-plan edo pentsio-plan bat** ireki beharko dute, edo lehendik zeukaten plan bateko ekarpen erregularrak handitu, 2019ko apirilaren 15etik uztailearen 9ra bitartean.

NAN bakoitzeko sari bat baino ez da emango. Zozketak prozedura informatiko bidez egingo dira. Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak. Baita, LABORAL Kutxaren iritziz, sustapen honetan, zozketa-eguna bitartean, iruzurrez jokatzeko duten bezeroak ere.

Irabazleek egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontraturiko produktuak eta/edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

4.- Zozketa

Bost sarien zozketa 2019ko uztailearen 19an egingo da, ausazko sistema informatiko bidez eta zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean.

Gainera, ordezkoko 5 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

5 egun balioduneko epean saridunarekin harremanetan jartzetik ez badago Entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezkokoarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

Hileko ekarpen erregularra, 2019ko uztailekoa, bider hamabi eginda ateratzen den zenbatekoa, gehienez 3.000 euro saridun bakoitzeko, jasoko dute 5 sarien irabazleek. Entitateak egoki deritzen moduan eta lekuan emango ditu sariak.

6.- Sariaren zerga-sistema

Saria indarreko legedian ezarritako zergen eraginpean egongo da. Sariak zerga-karga ekonomikorik badu, LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko. Zergen alorreko gastu guztiak irabazlearen kontura izango dira.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan.

Ez baditu baldintzok betetzen, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere.

Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.